



ULIBARRI
EUSKALTEGIA



Kalitatea. Egitekoak

Ulibarri Euskaltegia Irakaskuntza kooperatiba Elkarteak, kalitate ereduak zein arauak erreferentziatzat hartuta, euskara eta euskal kulturari lotutako gaien ikaskuntza/irakaskuntza eta hizkuntzaren normalizazioa eskaintzen du.

Batetik, ikasleak gizarteratzeko edota azterketa ofizialak nahiz bestelakoak egiteko ahalik eta ondoen prestatuz; eta bestetik, edozein prestakuntza eskaera koordinatuz eta trebatze aukera zabalei bultzada emanez. Material didaktiko berrien sortze lanek ere programaren berrikuntza eta hobekuntza jartzen dizkigute eskura.

Aldi berean, enpresa publiko zein pribatuetan euskara planak diseinatu, ezarri eta horien jarraipena egiten du, bai eta enpresako hizkuntzaren egoeraren diagnostia ere.

Xede horietarako, enpresak bereziki zaintzen du hizkuntzaren kalitatea.